

Sexu- eta genero-aniztasuna errespetatuz heztea irakasle talde osoaren funtsezko egitekoa da: ikastetxeetan aniztasuna jorrateak erantzukizun bat eta konpromiso bat dakar eskola eta gizarte bidezkoago bat sortzeko.

Hezkuntzako profesionalak garen aldetik, edozein bereizkeriaren aurka gaude arrazoia sexu- edo genero-aniztasun denean.

Giza-eskubideak edozein sinesmen erlijioso edo kulturalen gainetik daude, eta beraz, indarkeriarik gabeko bizitzarako eta norberaren nortasuna askatasunez garatzeko eskubideak izan behar du irakaskuntzaren ardatz.

Praktika on hauen alde egiten dugu

LGTBI+ PERTSONEK TRATU ONA JASOTZEKO PRAKTIKA ONEN

DE KALO GOA

D_01.

Ezagut itzazu LGTBI+ errealitatearen gainean dituzun beldurrak, aurreiritziak eta estereotipoak;

zenbat eta hobeto ezagutu, errazago izango zaizu eraldatzea ikastetxearen errealitatea eraldatu ahal izateko. Pertsona guztiok LGTBI+fobian hezi izan gara, eta landu beharrean garen kontu bat da, aurreiritziak kentze aldera.

D_02.

Ez ezazu aurrez ziurtzat eman zure ikasleriaren edo hezkuntza-komunitateko edonoren heterosexualitatea zein generoa.

Zabaldu zaitez pertsona bakoitza heterosexuala, homosexuala, bisexuala edo transa denaren aukerari edo, besterik gabe, edonork gaiaren gainean zalantzak edo jarrera propio bat izateari. Sexu-aniztasunari ikusgarritasun handiagoa emango dioten hitz neutroak erabil ditzakezu. Erabili, esate batera, «bikotekidea» hitza «nobia/nobioa» hitzaren ordez. Edo, norbaiti galdetzean, galdetu iezaiozu «norbaitekin irteten den» edo «bikotekiderik daukan», «nobia/nobioa» ote duen galdetu ordez.

D_03.

Ez ezazu ziurtzat eman ere zure ikasleria nahitaez aita eta ama batek eratutako familia batekoa denik.

Askotariko familia-egiturak daude: homoparentalak, monoparentalak, berreratuak, tutoreekin bizikidetzan, transnazionalak, etnia anitzekoak, etab. Aitaren eta amaren egunaren gaineko ikuspegia alda dezakezu, horiek zure gelan eta, oro har, gizartean den familia aniztasunari buruzko hausnarketa-eguntzat hartuta.

D_04.

Garbi adieraz ezazu ez duzula onartzen inolako LGTBI+fobia jarrerarik.

Jarri itzazu ikurrak lan egiten eta arreta ematen duzun tokia LGTBI+ pertsonentzat leku segurua dela adierazten dutenak.

D_05.

Ikastetxean eskain itzazu sexu-, familia- eta genero-aniztasunari buruzko materialak;

baliabide pedagogikoak izango dira irakasleentzat eta erreferentziazko materiala, berriz, ikasleentzat. Ziurta ezazu zure ikastetxean eskaintzen diren material guztiak errespetua diotela sexu-, familia- eta genero-aniztasunari.

D_06.

Optimiza itzazu ikastetxeko espazioak, banakako kabinak dituzten komun mistoen alde eginez.

Era horretan, genero arrazoiengatik bereizkeria murrizten lagunduko duzu. Hori gauzatu bitartean, ikasleak komun eta aldageletara zuzentzean eurek uste duten generoari dagokiona aukeratzen utzi behar zaie.

D_07.

Berrikus itzazu dauden inprimakiak (matrikula-orriak, tutoretza-fitxak, familiekin/legezko tutoreekin komunikazioak, etab.)

familien eta ikasleen heterosexualitatea ziurtzat ematea saihesteko.

D_08.

Ezar itzazu mekanismoak ikastetxeko pertsona guztiak trans ikasleei aukeratu duten izenaren eta generoaren arabera trata ditzaten.

Ez da ikasleen ardura irakasle bakoitzari edo irakasle ez den bakoitzari hori jakinarazten ibili behar izatea, ikastetxeak hartu behar du bere gain ardura hori.

D_09.

Destimifika ezazu trans guztiak ebakuntza egitea nahi dutenaren ikuspegia

Genero-nortasunaren garapenerako ez da nahitaez ebakuntza eta tratamendu hormonalak egin beharrik. Indar ezazu gorputzarekiko autoestimua: bere gorputza orain maitatzea eta zaintzea duen garrantzia landu, eta horrela aurrerago hormonazio edo ebakuntza prozesu bat abiaraztea ala ez erabaki dezan eta sentitzen duen sexua eta generoa baldintzarik onenetan bizi dezan, behar den informazio eta babes guztiarekin. Ez ezazu erabili «okerreko gorputza», «dagokion gorputzean ez egotea» edo antzeko adierazpenik.

D_10.

Errespetu ezazu une oro LGTBI+ ikasleen, irakasleen zein irakasle ez direnen pribatutasuna eta intimitatea.